

AMURRIO

– ARABA / ÁLAVA –

Gasteiztik 40 bat kilometrora dago Amurrio, eta, Gasteizen gaudela, Bilborako bidea, N-622 edo Altubeko autobia deritzotena hartuta, iristen da bertara. Ametzaga pasatu eta gero, eskuinetara egin behar da, A-624 errepidean zehar, eta A-68 autobidetik paraleloan doan bide horrek eramango gaitu Amurriona. Izen bereko udaleko erdigune da Amurrio, eta, Laudioekin batera, Aiara haraneko herririk handiena.

Nerbioi ibaiari jarraituz, Urduñatik Laudiora doan bideak eta Altube ibaiari jarraituz Artziniegara doan bideak bat egiten duten bidegurutzean dago Amurrio. Erromatarren aztarnak dira bertan. Izan ere, dagoen lekuan egonda, Amurrio antzinatek existitzen da. 1095ean Laudioko eliza zaharra sagaratu zuteneko kronikan, esaterako, jasota dator Amurrioren aipamen bat. Nabarmentzekoa da baita Erdi Aroko familia noble askok bertan erai-ki zituztela euren dorretxeak; Amurrioren bertan batzuek, eta ondoko herrixketan beste batzuek. Mendixurren –Aiara familiak– Saerinen –Ginea etxeok– edo Mariakan –izen bereko leinukoek–. Dorre horietatik zelatatzen zituzten Amurrioren gurutzatzen ziren hainbat eta hainbat bide.

Amurrio se encuentra situado a unos 40 km de Vitoria, desde donde se llega tomando la N-622 o Autovía de Altube en dirección a Bilbao. Tras pasar Ametzaga, el desvío a la derecha conduce a la carretera A-624, paralela a la autopista A-68, que desemboca directamente en Amurrio. La localidad es cabeza del ayuntamiento del mismo nombre y una de las poblaciones, junto con Laudio, más importantes del valle de Ayala.

Amurrio se sitúa en el cruce del camino que va desde Orduña a Laudio, siguiendo el río Nervión, por un lado, y del que desde el río Altube conduce a Artziniega, por el otro. Ambos conservan huellas del paso de los romanos. Debido a este emplazamiento, Amurrio existe desde antiguo, y en la crónica de consagración de la primitiva iglesia de Laudio en 1095 ya se cita la de Amurrio como preexistente. También es importante el papel que jugó como lugar elegido por diversas familias nobles medievales para establecer sus torres, situadas en el propio Amurrio o en aldeas muy cercanas, como Mendíjur –de la familia Ayala–, la de Saerín –solar de los Guineas– o la de Mariaca –de la familia del mismo nombre–. Estas torres se utilizaban como vigilancia de los pasos de diversos caminos que encontraban su cruce en Amurrio.

Andre Maria eliza / Iglesia de Santa María

HERRIAREN ERDIAN dago Amurrioko parroquia-eliza. XVI. mendean bigarren erdian altxatu zuten eta, berabat hondatuta zegoela, berriz ere eraiki zuten XVIII. mendean. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da; hiru ataleko nabea, presbiterioa eta zortzialdeko burualdea dituena. Eliza aurrietan zegoela, dorrea eta elizpea berriz ere altxatu zituzten, 1771. urtean, eta, XX. mendean hasieran handitu egin zuten eraikina, kantoian dagoen aldean. Elizpe horretan dago tenplu osoan ageri den aztarna erromaniko bakarra: hegoaldeko portada. Gorde egin da gaur egun arte, nahiz eta portada nagusia tenpluaren oinetan dagoen. Hegoaldeko hormaren aurrean dago portada, elizako kontrahorma batek eskuinaldetik apur bat ebakita. Lau arkibolta zorrotz ditu, eta deskarga-arku bat; arkibol-

SITUADA EN EL CENTRO del pueblo, la iglesia parroquial de Amurrio es un ejemplar construido en la segunda mitad del siglo XVI y reconstruido tras su ruina en el siglo XVIII. El edificio consta de planta rectangular con nave de tres tramos, presbiterio y cabecera ochavada. El pórtico se construyó, junto con la torre, tras la ruina del templo en 1771, y se amplió a comienzos del siglo XX en la zona cortada a chaflán. Este pórtico acoge el único resto románico del templo, la portada del lado sur, que se conserva pese a que la portada principal se abre a los pies del templo. Es una portada que se adelanta sobre el muro sur y aparece ligeramente cortada, en su lado derecho, por un contrafuerte de la iglesia. Consta de cuatro arquivoltas apuntadas y sobrearco, las primeras baquetonadas y el

tak baketoidunak dira, eta arkuak, berriz, ertz bizikoa. Multzo osoa inposta lau baten gainean dator. Barruko arkiboltak ate-zangoko pilastra batek eusten dio; moldura txiki bat dauka, beheraino doan angeluan zutaberdi daukala. Gainerako arkiboltei, oster, fuste lauko eta atzapar-oinarriko hiru pare zutabek eusten diete. Zutabe horietako kapitelak sarri ageri izaten dira Kuartango, Zuia eta Urkabustaizen, XIII. mendeko erromanikoan. Molduradun abakoak dituzte denek, eta beheranzko hiru harmaila ere. Kapitelaren gorputza, gainera, sigi-sagan dago apainduta. Ezkerretik eskuinera, hiru bola dauzkate goiko partean –erdikoari elementu bertikal batek eusten dio–. Gainerakoak, berriz, lauak dira, atzaparra dute goialdean, burdinazko loturaren gisara; kiribilduradun bi bola alboetan, eta barril txiki bat angeluan; kiribildura duten bolak eta bola bat angeluan lau atzaparretara lotuta; eta eskuinaldean, bizkarrean barrilak daramatzaten pertsonaia txikiak, hondatutako angeluan besoetan hartuta; eta kanpoaldeko kapitelean, atzapardun bolak beste bietan, elementu bertikalek eusten dietelarik.

Portada gainean zortzi harburuko hegala gorde da. Ezkerretik eskuinera: emakume baten irudia, txanoa, kokospeko uhal eta xingolarekin aho gainean; harburu laua; animalia baten burua mihia kanpoan duela; beste har-

último en arista viva. El conjunto se apoya sobre una imposta lisa. La arquivolta interior descansa sobre la pilastra de la jamba, levemente moldurada con una semicolumna en el ángulo que cae hasta el suelo, mientras que bajo las otras arquivoltas se ven tres pares de columnas de fuste liso y basas de garras. Los capiteles de las columnas son muy característicos en el románico del siglo XIII en la zona de Kuartango, Zuia y Urkabustaiz. Todos tienen el ábaco moldurado y tres escalones descendentes, y el cuerpo del capitel cubierto por zigzag. Muestran, de izquierda a derecha, tres bolas en la parte superior –la del centro sujeta por un elemento vertical con sogueado–, mientras que los otros son lisos, y con garra superior que recuerda al engarce del hierro; dos bolas con voluta a los lados y pequeño barril en el ángulo; bolas con voluta y bola en el ángulo engarzada con cuatro garras; y en el lado derecho, pequeños personajes que portan barriles sobre sus espaldas, sujetos con los brazos el del ángulo destruido; y en el capitel exterior, bolas con garras en los otros dos, con elementos verticales sujetándolas.

Sobre la portada se conserva también un tejeroz con ocho canecillos que, de izquierda a derecha, presentan mujer con toca de barbuquejo y cinta sobre la boca; ca-



Portada

Portada



Portadako kapitelak
Capiteles de la portada



Exhibizionista
Exhibicionista

buru bat apaindu gabe; felido bat, atzeko hanken gainean dago, alboz irudikatuta eta buztana hankartean eta bizkarralderantz kiribilduta duela, aurreko hankekin harrapakinari eusten dio burua albo batera bihurtuta eta hortzak erakusten dituelarik; arrano bat untxi bati eusten; bizardun gizonezko bat irribarretsu; eta beste gizonezko exhibizionista nabarmen baten irudia, gorputza erakusten.

Aurretik esan bezala, hemen ageri den kapitel mota Arabako XIII. mendeko erromanikoaren adierazgarria da, kono-enbor bereziarekin, bolak goialdean eta kordoiak edo sartuerak zaldiazen azalean, Kuartango, Zuia eta Urkabustaizen azaldu ohi den bezala. Forma horiek zabaldu ohi dira, Aiaran zehar Nerbioi aldera ere, eta handik hurbil dagoen Lezama herrian ere horrelakoak aurkitzen ditugu. Bitxikeria moduan, nabarmenezkoa da miniaturazko obrak ageri direla barruko eskuinaldeko kapitelo barrilei eusten dieten pertsonailetan. Eskultorearen kapritxoa izango zen ziurrenik, baina kontua da oso lan nekeza izan zela, harria gogorra baita eta lantzeko oso gaitza, Amurrioko portada honetan.

necillo liso; cabeza de animal con la lengua hacia afuera; otro can sin decorar; felino levantado sobre las patas de atrás, colocado de perfil, con el rabo entre las piernas y enroscado hacia su espalda, las patas delanteras sujetando una presa sin identificar y con la cabeza girada hacia el espectador mostrando los dientes; águila en presa sobre un conejo; personaje masculino barbudo y sonriente; y varón exhibicionista y grotesco.

Tal y como ya se ha citado, el tipo de capitel que aquí se encuentra corresponde a una corriente exclusivamente ornamental del románico alavés del siglo XIII, con la característica forma troncocónica, bolas en lo alto y cordones o sogueado en la superficie del equino, típico de las zonas de Kuartango, Zuia y Urkabustaiz, y que se extiende por Ayala en la zona del Nervión, según se puede ver en la cercana población de Lezama. Como elemento curioso cabe destacar la presencia de pequeñas obras de miniaturista en los personajes que sujetan los barriles del capitel interior derecho. Si bien puede deberse a un capricho del escultor, suponen un trabajo dificultoso por el tipo de piedra dura y de difícil talla que se utilizó en esta portada de Amurrio.

Etxegoien San Migel baseliza *Ermita de San Miguel de Etxegoien*

AMURRIO HEGO-EKIALDEAN dago Etxegoien. Han-hemen sakabanatuta dauden baserriek osatzen dute auzoa, erdigune zehatz barik. A-624 errepidea hartu behar da Arespalditzarantz, bertara iristeko. Amurriotik irten ondoren, bide batek Etxegoien era eramango gaitu. Baselizara heldu baino lehen, bidearen amaieran den etxe multzoa zeharkatu behar da, eta handik gora egin herrixkatik aldentuta dagoen Juntetxeraino. Handik aurrerakoa bidezidor batetik zehar oinez egin behar da, zuhaitz artean.

Argiune batean eta zuhaitzek inguratuta, San Migel baseliza antzinako auzoko parroquia izan zen. Horren antzekoak izango ziren seguruenik Aiara aldeko Erdi Aroko herrixketako elizak. Herrixka txiki eta bizilagun gutxikoek izan zituzten gurtze- lekuetako bat da, neurriari dagokionez. Antzinako eraikin erromanikoaren gainean dago altxatuta gaur egungo baseliza, eta sasoi hartatik gorde ditu erdi-puntuko arkudun portada, itxura batean tenplu zaharreko kanoi-ganga zorrotza izan zena, eta harburu alakatuen bi lerro ere, eraikinaren iparrean eta hegoaldean.

Testua eta argazkiak: REA

ETXEGOIEN ES UNA PEQUEÑA ALDEA formada por caseríos dispersos, sin un núcleo centralizado, situada al sureste de Amurrio, a la que se accede por la carretera A-624 hacia Respaldiza. Tras salir de Amurrio, una carretera conduce hacia Etxegoien. Para acceder hasta la ermita hay que cruzar el pequeño conjunto de casas al final del camino y ascender hasta la Casa de Juntas, que está apartada de ese pequeño núcleo. El resto del camino hay que hacerlo a pie por una senda arbolada.

Situada en un claro y escondida entre árboles, la ermita de San Miguel era la antigua parroquia de la aldea. Es un ejemplo de lo que podrían haber sido las pequeñas iglesias rurales de la Edad Media en el valle de Ayala, porque mantiene los volúmenes de aquellas al ser el lugar de culto de una aldea pequeña y casi despoblada. La ermita actual se levanta sobre los muros aprovechados de la construcción románica, y de esta época conserva la portada con arco de medio punto, lo que pudo ser la bóveda de cañón apuntada y dos líneas de canecillos biselados, al norte y al sur de la construcción.

Texto y fotos: REA



Ikuspegi orokorra

Vista general

Bibliografía / Bibliografia

CASTRO, C. de, 1915, p. 126-128; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 100-105; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 24, 391; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, p. 72; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 1988, pp. 214-216, 231, fig. 100-102, 127.